



IRALEn dauden irakasleen ordezkapenak: HAU EZ DA INOLA ERE GESTIO EGOKIA

Jakin izan dugu Hezkuntza Sailaren asmoa dela IRALEn dauden irakasleak ordezkatzeko ari diren **ordezkoen kontratuak abenduaren 18an etetea**, ikastetxeen beharrak eta egutegia kontuan hartu gabe.

- Hiruhilabete osoan aritu den **irakasle ordezkoak ez luke azken egun hauetan eskolan egon behar?** (ikasleen txostenak, gurasoentzako informazioa, hiruhilabeteko amaiera eta jaiak...) Irakasle ordezkoen lan-baldintzei begira onartezina da, eta gainera ikasleei eta irakaskuntzako kalitateari kalte larria eragiten die.
- Honela, **ezin da bermatu irakasle ordezkia eta IRALEra joan den irakaslea batera egongo direnik ikastetxean**, azken urteotan gertatu izan den moduan, beharreko informazio-trukaketa eta koordinazioa egin zezaten (2004-2005 ikasturteetik hona, horrela egin da). Erabaki honekin **gure lana eta eguneroko zeregina ez dira aintzat hartzen**, eta **irizpide ekonomiko hutsa jartzen da ikastetxearen beharren gainetik**.

STEE-EILASek bere desadostasuna adierazten du erabaki honekiko eta **atzera egiteko exijitzen dio Hezkuntza Sailari**, ikasleek eta irakasle ordezkoen lanak merezi duten errespetua aitortuz, ikastetxeen jardunak behar bezala antolatu eta koordinatu ahal izateko.